



Arartekoaren ebazpena, 2012ko abuztuaren 14koa. Horren bidez, Oiartzungo Udalari gomendatzen zaio egindako eskaera baten izapidea sustatu dezan eta egindako eskaera bakoitza erantzun dezan.

Aurrekariak

1. Pertsona batek erakunde honetara jo zuen egindako eskaera bati -2011ko uztailaren 18an aurkeztutakoa- Oiartzungo Udalak erantzunik eman ez diola helarazteko. Eskaera horretan (...). poligonoko (...). lurzatiko eraikuntza, erabilera eta erregistro inskripzioei buruzko hainbat kontu azaltzen zituen.

Eskaera aurkeztu zuenetik hiru hilabete baino gehiago igaro izanda, erreklamatzailerak adierazi du ez duela idatzizko inolako jakinarazpenik jaso horren inguruan hartutako udaleko neurrien inguruan. Hori dela-eta, erakunde honetara jo du horren inguruko erantzun bat jasotze aldera.

2. Erreklamazio hori izapidetzeko onartuta, 2011ko urrian Oiartzungo Udalari informazioa eskatu genion, asmo horren aurrean jarraitutako jardueri buruzkoa.

Gure eskaerari erantzunez, 2011ko azaroan, udaleko idazkariak kontu horren inguruko informazioa eskaini zigen. Txostenean azaltzen zenez, eskaerak udaleko hainbat sailetan (Hirigintza, Ingurumena, udal errolda...) eragina zuten zenbait kontu azaltzen ziren. Hori zela-eta erantzuna atzeratzen ari zen. Nolanahi ere, idazkariak eskatutako txosten guztiak pilatzerakoan erantzun bat emango zigula bermatu zuen.

3. Informazio hori erreklamatzailerari helarazita, 2012ko uztailan -udal erantzuna jaso eta zortzi hilabete ondoren- hark esan digu aurkeztutako salaketaren erantzunik jaso gabe jarraitzen duela.

Erreklamazioa kontuan hartuta, eta kexaren planteamendua zein udalak igorritako informazioa aztertu ondoren, honako gogoetak helarazi nahi dizkizugu:





Gogoetak

1. Kexa hau aurkeztu da udalak erantzunik eman ez diolako erreklamatzaillearen informazio eskaerari (...). poligonoko (...). lurzatian eragina duten hainbat udal-espediteren egoeraren izapidetze egoerari buruz.

Zentzu horretan, lurzati horretan eragina zuen hirigintza espediente bati buruzko informazioa eskatzen zuen, lurzattia hirigintza katastroan izena emana ote zegoen, udal erregistroetan biltegi bat zegoela jasota ote zegoen eta egoiliarren eroldako inskripzio baten inguruko kontsulta bat ere egin zuen.

Arartekoari emandako udalaren erantzunean, Oiartzungo Udalak dagokion sail bakoitzean dagokion txostenak biltzen ari dela besterik ez digu esaten.

2011ko azaroaz geroztik ez dira ondorengo jarduerarik jaso. Era berean, aipatu beharra dago, erreklamatzailleak berriro ere erakunde honetara jo zuela 201ko uztailan erantzuna ematen izandako atzerapena salatzeko.

2. Orokorrean, hasi behar dugu esanez herri-administrazioek, herritarrekiko harremanetan, administrazio prozeduraren bidez bideratu behar dituztela euren eginkizun publikoak. Administrazioak horrela jokatzeko arrazoiak xede bikoitza dauka: administratuen eskubideen bermea izatea eta, bestela, interes publikoarena berarena.

Administrazio prozedura orokorrak administrazio jarduera ordenatu, izapidetu eta fiskalizatzeko kontuan hartu beharreko arauak xedatzen ditu.

Administrazio izapideak eta herritarrentzako egiazko erantzuna egotearen bermea Espainiako Konstituziotik beretik dator –103.1 eta 105. artikulua- eta Lisboako Itunak sartutako Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartako 41. artikulua xedatzen duenez, herritarrek administrazio onerako duten eskubidearen baitakoak dira.

Administrazio onerako eskubide horren barruan, honakoak aipa ditzakegu: aurkeztutako idazkien hartu-agiria, ofizioz bultzatzea eta agertutako kontu bakoitzari berariaz erantzun beharra. Halaber, administrazioak euren nahiri buruz erabil ditzaketen eskubideen berri eman behar die pertsonei.





Zehaztasunik ezak edo nahiak edo erreklamazioak bere jarduketa eremua gainditzeak ez du herri-administrazioa bere betebeharrak betetzetik salbuesten.

Aitzitik, herritarren erreklamazioei dagozkien izapideak ez egitea eta administrazio erantzunik ez ematea administrazioaren funtzionamendu ezohikoa da.

3. Zentzu horretan, hainbat kontu eskatzen dituen idazki bat aurkezteak aipatutako moduko izapidea eskatzen du.

Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, 70. artikuluan, interesatuak eskatuta prozedura hastea xedatzen du.

Kontu edo eskaera ezberdinak bidaltzerakoan, kontu bakoitzarentzat beharrezkoak diren espedienteak ireki beharko lirateke.

Aipatu dezakegu toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 160. artikulua erregistroan aurkeztutako agiriak sailkatu eta kalifikatzeko jarraitu beharreko prozedura xedatzen duela:

"El encargado del Registro, una vez efectuada la inscripción, hará la clasificación de los documentos ingresados y procederá a distribuirlos entre las distintas oficinas, donde se anotarán en el registro parcial y unirán a sus antecedentes, si los hubiere, o se abrirá o iniciará expediente en su caso, dándole la pertinente tramitación."

Kasu horietan, administrazioaren funtzionamendua arautzen duten arauak, hala nola formalismoaren aurkakotasunak, fede onak edo bidezko konfiantzak bidea ematen diote administrazioari idazki horiek berariazko prozedurara birbideratzeko eta, egokia balitz, eskatzeko eskubidera, hari dagokion izapidea emateko.

Azkenik, gogoratu behar dugu interesdunek egiten dizkieten eskaera guztiei berariaz erantzun behar dietela herri-administrazioek. Horrela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua berariaz jasotzen du herri-administrazio guztiei zuzendutako agindu hori.





Toki administrazioen kasuan, toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamenduaren 176. artikulua zera dio: *“Espediente bat hasi ondoren, toki erakundeek berariaz ebazteko beharra dute”*.

Horregatik, esan behar dugu herritarrek aurkezten dituzten idazki guztiak izapidetu behar dituela udalak, azkar eta modu eraginkorrean, harik eta espedientea amaitu arte edo behin betiko ebazpena eman arte.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortzeko eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 11 b) artikuluan ezarritako manuairekin bat etorriz,

78/2012 GOMENDIOA, abuztuaren 14koa, Oiartzungo Udalarari egina

Erreklamatzailleak egindako eskaeraren izapidearekin jarrai dezan.

Horretarako, eskaera hori beharrezkoak diren administrazio espedienteetan sailkatu beharko du eta eskatutako kontu bakoitzari -albait lasterren- erantzuna eman beharko dio, sektorekako legeriak xedatzen duen moduan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako arauen babesean.

